
ERNESTO ETA ZELESTINA KALE MUSIKARIAK

Testua eta irudiak: **GABRIELLE VINCENT**

Itzulpena: **EVA LINAZASORO**

Azal gogorrean koadernatua. 24 x 22 cm. 32 or. 15 €.

Ernesto eta Zelestina, kale musikariak (euskera)
ISBN 978-84-7681-979-1. Kalandraka - Pamiela.

Ernesto y Celestina, músicos callejeros (gaztelania)
ISBN 978-84-8464-285-5. Libros para soñar.

Ernesto e Celestina, músicos da rúa (galegoa)
ISBN 978-84-8464-286-2. Tras os montes.

Ernest i Celestina, músics de carrer (katalana)
ISBN 978-84-16804-11-5. Llibres per a somniar.

–Begira, Zelestina, euria ari du ganbaran.

Teilatua konpondu beharko dugu negua hasi aurretik.

–Baina, diru asko kostatuko zaizu, Ernesto, gaixoa.

Nola egin behar duzu?

–Triste zaude, Ernesto?


–Ez, pentsakor nago. Sosak lortu beharko ditut!

Gabrielle Vincent-ek 80ko hamarkadan argitaratutako hartz zintzo eta sagutxo baten gorabeherak jasotzen dituen 30 liburuz osatutako bildumaren aleetako bat da “Ernesto eta Zelestina, kale musikariak”. Apalki bizi dira biak etxe zahar batean, eta etxeko konponketak egin ahal izateko dirua lortze aldera, Zelestinak Ernestori kalean biolina jotzea proposatuko dio.

Bien arteko desberdintasunak begien bistakoak dira, bai fisikoak (Ernesto mardul-mardula da eta Zelestina, berriz, tiki-ttikia), bai eta izaerari dagozkionak: sagutxoa inizatiba, bizitasun eta optimismoaren islada da, eta, hartza, ordea, alferkeria, protekzioa eta pesimismoarena.

Elkarrizketa egitura duen liburu honetako lenguaia sinplea da, eta testuaren eta ilustrazioen arteko oreka handia du. Pasadizo zenbaitetako hitzik eza istorioaren narrazio bisualarekin ordezkatzeko da. Irudi piktorikoak dira, akuarelaz egindako marrazki leunak.

Kontakizun goxoa da, humorezko zertzeladez betea; zailtasunak gainditzeko adiskidetasunak, eskuzabaltasunak, batasunak eta izpiritu ekintzaileak duten garrantzia azpimarratzen duena. Zoriona gauza ttikietan aurkitzearen eta tarte onak partekatzearen aldeko apustua egiten duen kontakizuna.



■ **Gala:** adiskidetasuna, ekimena, hobetzea.

■ **Zeln adinetarako:** 3 urtetik aurrera, lehen irakurleak.

■ **Alderdi azpimarragarriak** itxura eta nortasun desberdinak, elkarbizitza, laguntasuna, osagarritasuna, emozioak.

Gabrielle Vincent

(Brusela, 1928 - 2000)

Monique Martinen ezizena, Gabrielle eta Vincent bere aitona-amonengandik hartu zuena. 80. hamarkadan haur liburuak idatzi eta ilustratzen hasi aurretik margolaria izan zen. Bere lanik goraipatuena Ernesto eta Zelestina bilduma izan da, zeina 2012an zinemarako egokitua izan bait zen eta honako sari hauek lortu: Zesar Saria animaziozko film onenari, aipamen berezi bat Cannes-eko Jaialdian, eta Los Angeles-eko Kritikarien Elkarteak emandako sari bat.



www. **Kalandraka**.com
comunicacion@kalandraka.com

www. **Pamiela**
etxea
soltxate@pamiela.com
